

2019 helburu



 ABIAN

<http://adn.urmenkeria.euzkadi.eus>

Kudeaketa plana

Errenteriko

kreatiboa



ERRETERIAKO UDALA

IZENBURUA

2019 helburu. Kudeaketa plana.

EDITOREA

Errenteriako Udala
Herriko Plaza, z/g
komunikazioa@errenteria.eus

TESTUAK

Errenteriako Udala CC-BY-SA

ARGAZKIAK

Errenteriako Udala eta Esaten Comunicación y Publicidad S.L.

DISEINU ETA MAKETAZIOA

Esaten Comunicación y Publicidad S.L.

2017ko Ekaina





Gure kudeaketa plana

Errenteriako Udalaren 2019 urtera arteko proiektu estrategikoak, lan lerro ezberdinak eta horien aurrekontuak ikus daitezke kudeaketa plan honetan, oso modu bisual eta laburtuan.

Administrazioaren modernizazio eta sinplifikazioarekin konprometituta, Errenteriako Udala hiru arlo handitan berrantolatu dugu: Antolaketa, Herritarrak eta Lurraldea. Estructura berri honek koordinazio handiagoa eta planifikazioa hobetzea ahalbidetzen du herritarrei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea handitzea.

Azken batean, esku artean duzun argitalpen hau gardentasun ariketa da. Izan ere, herritarrak jarduera politiko eta administatiboaren erdigunean jartzeko ezinbestekoak baitira Udalaren egitekoen gaineko informazioa jasotzeko, parte hartzeko eta fiskalizatzeko tresnak.

indizea

SARRERA / _____ 4

HELBURU ESTRATEGIKOAK /

1 /
ANTOLAKUNTZA _____ 6

1.1 /
Pertsonentzako administrazio
berria sortzea _____ 10

2 /
HERRITARRAK _____ 16

2.1 /
Pertsonak babestea, gizartea
kohesionatzeko eta garapen
iraunkorrerako elementu direlako _____ 22

2.2 /
Herritar aktiboak
izatea sustatzea _____ 26

3 /
LURRALDEA _____ 32

3.1 /
Garapen sozioekonomikoaren
aldeko apustua _____ 38

3.2 /
Pertsonentzako ingurune
iraunkorra sustatzea _____ 40

AURREKONTUAK ETA KRONOGRAMAK /__ 46

misioa

Herritarren beharrak eta itxaropenak asetzea, beti ere etengabeko komunikazioaz eta gardentasunaz; era berean, kudeaketa eraginkor, arina eta berritzaiearen partaide eginez

ikuspegia

Ikasten duten eta berritzaileak diren pertsonak bizi diren lurraldea lortzea. Kalitatezko ingurunea eta bere baliabideen gainean gaaparen sozial eta ekonomiko arduratsuak lortuko dituen. Bere bizi kalitatea dela-eta pertsoak erakartzen eta mantentzen dituen hiria.

balioak

GARDENTASUNA /

Gertukoa, gaur-gaurkoa, soila.

ZERBITZU PUBLIKOKO BOKAZIOA /

Inpartziala, konprometitua.

ERAGINKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA /

Gaurkoa, bizkorra eta lidergoaz.

BEGIRUNEA /

Harreman guztietan, barrukoak zein kanpokoak.





1/ antolaketa



“Botere egitura bat dago egitura informazional ororen muinean. Iraultza informazionalak abalbidetzen du antolaketa forma berrien sorrera, eta hauek gero eta zailagoa egiten dute obiko antolaketa iberarkiko hadien jarduna”.

Alexander Bard eta Jan Söderqvist



Atal honetako helburu eta ekintzak aipatu aurretik, adierazi behar dugu Antolaketa arloak bere gain hartzen dituela Udalak zerbitzu publikoak emateko beharrezkoak diren babes legal, ekonomiko-finantzario eta administratiboari buruzko eskumenak.

Hauek dira Herritarren arloko sailak eta azpisailak eta hauen eskumenen azalpen laburra:

IDAZKARITZA NAGUSIA /

Aholkularitza juridikoa eta fede publiko administratiboa.

OGASUNA ETA GARAPEN EKONOMIKOA /

Kontrolatzea kudeaketa ekonomikoa, finantzarioa eta aurrekontukoa eta barne-fiskalizazioa burutzea, bai eta Diruzaintza eta Kontabilitateari dagokienez ere. Kontu-ematea. Zergak kudeatu eta biltzea.

INFORMAZIOA GIZARTEA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA (ANTOLAKETA) /

Barne-antolamendua, herritarren arreta integralerako zerbitzua abian jartzea, komunikazioa eta herritarren parte-hartzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT).

ZERBITZU JURIDIKOAK /

Aholkularitza eta Udalaren defentsa juridikoa.

KONTRATAZIOA ETA ONDAREA /

Kontratazio publiko administratiboaren eta udal-ondarearen kudeaketa.

GIZA BALIABIDEAK /

Langileen hautaketa, lan-harremanak, ordainsariak eta prestakuntza.

INFORMATIKA /

Azpiegitura eta segurtasun informatikoa eta telefonikoa kudeatzea.

ARTXIBOA /

Udaleko artxiboaren (dokumentazioa) plangintza, kudeaketa eta kontserbazioa burutzea.

Kudeaketa plan honek esan nahi du Antolaketa arloan helburu estrategiko garrantzitsu bat duela helburu: erronka berriei aurre egingo dien administrazio berria sortzea.

1.1 / Pertsonentzako administrazio berria sortzea

helburu estrategikoa

Administrazio eraginkorra soilik da gai sektore publikoaren privatizaziorako joerari aurre egiteko. Horren jakitun izanik, gure erronka garrantzitsuenetarikoa da administrazio eraginkorra sortzea, herritarren beharrei erantzuteko gai dena gardentasunez, hurbiltasunez eta eraginkortasunez, administrazioa pertsonen beharretara egokituta, eta ez alderantziz.

Erronka hori betetzeko, hamaika ekintza edo proiektu zehaztu dira:

1.1.1 / UDALA BERRANTOLATZEA

Gure erakundearen egungo antolamenduaren eta funtzionamenduaren inguruan egindako hausnarketaren baitan, ondorioztatu dugu kudeatzeko modua aldatu beharra dagoela antolamendua eraginkorragoa eta efizienteagoa izango bada. Horretarako, Udalaren osaera organikoa berri-ritu behar da, helburu hartuta antolamendua sinplifikatzea eta sail eta azpisailen arteko koordinazioa hobetzea.

Hartara, egitura berrantolatzea beharrezkotzat jo dugu eta, ondorioz, hiru arlo handi sortu: Antolaketa, Herritarrak eta Lurraldea. Honenbestez, informazio batzorde iraunkarrak lehenagoko hamaika izatetik oraingo hiruak izatera pasatu dira, beti ere koherentzia eta erraztea gogoan.

Hiru arlo horietan bilduko dira egungo sail eta azpisailak, eta bakoitzean ezarriko dira bete beharreko helburuak eta horiek lortzeko ekintzak, bai eta lehentasunak ere.

1.1.2 / ZUZENDARITZA TALDE POLITIKO- TEKNIKOAK SORTZEA

Helburu hori lortuko bada, beharrezkoa da zuzendaritza talde misto bat izatea, politikariek nahiz teknikariek osatutakoa, koordinazio-funtzioak egin ditzan hiru arloen artean eta zubia izan dadin arduradun politikoaren eta teknikarien artean. Alabaina, gai eta kontu zehatzak aztertzea bezalako funtzio espezifikoak ere izango ditu.

Organo honetako kide izango dira alkatea, gobernu taldeko 3 kide, arloetako presidente eta batzordeburu direnak, Udaleko idazkaria eta kontu-hartzailea, eta hiru arloetako koordinatzaile teknikoak.

1.1.3 / UDALAREN AURREKONTUA PRESTATZEA HELBURUEN ARABERA

Arlo publikoaren kudeaketa-eredu berria eraikitzeko prozesu honetan, gure apustua da emaitzak eta herritarren zerbitzua helburu dituen kudeatzeko moduaren alde egitea. Helburukako kudeaketa, efikazia (zenbateraino lortzen diren helburuak), efizientzia (hobe gastatzea, kostu gutxiagorekin betetzea helburuak) eta kalitatea (herritarren itxaropenak betetzea) dituen oinarri.

Horrela jarduteak suposatzen du aurrekontua prestatzeko ohiko dinamika alde batera utzi eta programei lotutako aurrekontuetara pasatzea, lortu beharreko helburuak eta horretarako beharrezko jarduera eta baliabideak zehaztuta; adierazleak ere beharrezkoak izango dira ondoren azterketa eta kontrola egin ahal izateko. Administrazio efikaza, efizientea eta kalitatezkoa.

1.1.4 / ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKORAKO TRANSIZIO-PLANA PRESTATZEA

Gaur egun, gure harremanen teknologizazioa garrantzia hartzen ari da informazioaren gizartean, eta lege-betebe-harra izateaz gain, Udalarentzako aukera garrantzitsua ere bada pauso hori ere.

Hartara, legegintzaldi honetako helburuetariko bat da sek-tore honetako aplikatu beharreko araudiak ezarritako zer-bitzu guztiak ezarrita egotea, administrazio elektronikorako trantsizio-planean bilduta helburu hori lortzeko beharrezko jarduerak, eta aurreikustea IKTetako (Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) etengabeko egunerapena, betiere herritarren zerbitzuari begira.

1.1.5 / HERRITARREN ARRETA INTEGRALERAKO ZERBITZUA EZARTZEA

Administrazio-antolamendua hobetzeko funtsezko ele-mentua da Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ) ezartzea, erreferentziako zerbitzua izango baita herritarrentzat, era integralean eskainiko dizkiena teknikarien esku-hartze espezializaturik behar ez duten udal-zerbitzu gehienak (informazioa, tramitazioa eta kudeaketa), aurrez aurre, telefonoz edo telematikoki. Horrela, bada, legegintzaldi honetan ezarriko dugu herritarri administrazioarekin dituen harremanak erraztuko dizkion leihatila bakarra-ren zerbitzua.



1.1.6 / UDALAREN ARAUDI ORGANIKOA BERRIKUSTEA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO

Udalaren Araudi Organikoa berrikusiko dugu, XXI. mende-ko administrazioari berez dagozkion eta legeak ezartzen dituen baldintzak betetzeaz gain -hala nola, herritarren parte-hartzea, gardentasuna edo administrazio elektro-nikoa- bereziki betetzeko gure erakundearen misioari eta baloreei dagozkienak ere.

Horrela, erregulazio berriarekin herritarrek parte hartzeko tresnak eta bideak txertatu ahal izango ditugu politika publi-koetan, Errenterian gobernantza-eredu batean sakontzeko.

1.1.7 / GARDENTASUNAREN ATARIA. ABIAN JARTZEA ETA MANTENTZEA

Plan Estrategikoan ezarritako helburuetariko bat zen herri irekia lortzea. Gardentasunaren Atariarekin betetzen ditugu legeak gardentasunaren, informazio publikorako sarbidearen eta gobernu onaren arloan ezarritako eskakizunak, eta, batez ere, Plan Estrategikoan herritarrekiko hartutako konpromisoa. Ataria <http://gardentasuna.errenteria.eus> helbidean ikusi daiteke.

1.1.8 / INFORMAZIOA ETA DATUAK MODU IREKIAN ZABALTZEA: OPEN DATA

Hainbat datu emango ditugu inolako mugarik gabe eta formatu berrerabilgarrietan. Helburu honekin eskubide bat gauzaten dugu: herritarren esku jartzea administrazioek sortzen dituzten datuak, era irisgarri eta irekian, informazioa demokratizatzeko. Hartara, herritarren eskura jarriko dugun informazioak aukera emango die pertsonei datu horiek baliatuta hobekuntzak eta garapenak egiteko.

1.1.9 / UDAL KIROL PATRONATUA DESEGITEA ETA UDALEKO AZPISAILEAN TXERTATZEA

Administrazioa sinplifikatzeko printzipiotik abiatuta, gastu publikoa murriztearen eta Udalaren giza baliabideen kudeaketa integralaren irizpideei jarraiki, kirol-zerbitzua Errenteriako Udalaren egiturari txertatu da.

Udal Kirol Patronatuko langileak Udaleko plantillan txertatu dira. Kirolaren Aholku Kontseilua ere eratu da eta hori arautzeko erregelamendua onartu.

Azken batean, Patronatua Udalean txertatzeak aukera eman du zerbitzu hobea eskaini eta kostua murrizteko. inu-
ción del coste efectivo del mismo.

1.1.10 / ERRENERIA MUSIKAL UDAL PATRONATUAREN ANALISIA

Estatutuetan ezarritakoaren arabera, Patronatuaren helburua da musika irakastea baimendutako maila eta modalitate guztietan; musikaren teknika eta artea ikertzea eta garatzea; arlo honetako balioak eta lorpenak ezagutaraztea, bereziki, euskal musika; edo instrumentu-taldeak edo abesbatzak sortzea, eta antolatzea kontzertuak, hitzaldiak, argitalpenak eta Patronatuari esleitutako misioan lagun dezakeen beste edozein jarduera.

Beharrezkoa da Erreneria Musikal Patronatuaren irudia aztertzea eta hausnarketa egitea, ikusteko ikuspegi juridiko-ekonomikotik egokia den patronatu izatea edo, aldiz, desegitea komeni den, kudeaketari eta kontratazioa, langileen hautaketa edo aurrekontu-egonkortasuna bezalako alderdietan indarrean dagoen araudia betetzeari dagokionez. Halaber, aztertu behar da estatutuetan ezarritako helburuak zenbateraino betetzen diren eta helburu berriak ezartzeko beharra dagoen.

1.1.11 / GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA SUSTATZEKO KULTURA DEFENDATZEA, ERRENERIAN MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATUTA

Justizia, egia eta biktimen erreparazioa dira bakeak egiteko eta bizikidetzaren hoberako bidea.

Erreneriako Udalaren helburuetariko bat da memoria historikoa erreparatzea eta Gerra Zibilean eta erregimen diktatorial frankistan udalerrian izan ziren giza eskubideen urraketak ezagutaraztea, tokiko mailatik saiatuta berreskuratzen, egia ezagutzen eta aitortzen Errenerian bertan edo herriko jendeari gertatu zitzaizkionak.

Horrez gain, asmoa da emakumeen eskubideen urraketari buruz dauden azterlanak zabaltzea eta Gerra Zibilaren ondorioz jasan zuten kaltea erreparatu eta aitortzea bereziki.

Horretarako, jarduera hauek burutuko dira: egiari buruzko ikerketa egitea eta dokumentatzea, txosten dibulгатibo bat idaztea EAEko bi hizkuntza ofizialetan argitaratzeko monografiko bat eta sentsibilizazioko eta zabalkundeko kanpagnetan laguntzea.





2 / herritarrak

*«Nazio baten etorkizuna izango da herritarren burrengo
belaunaldia bezain oparoa».*

Nelson Mandela



Nahiz eta Udalak burutzen dituen jarduera guztien azken helburua izan herritarrei zerbitzua eta babesa ematea, eta haien bizi-kalitatea hobetzea, arlo honetan bil-tzen da pertsonen babesarekin lotura estuena duen oro, pertsonak baitira gizar-tea kohesionatzen duten elementua. Halaber, bultzatzen da herritarrak balioetan aktiboak izatea eta beren gaitasunak eta sormena garatzea.

Hauetara dira Herritarrak arloko sail eta azpisailak eta eskumenen azalpen laburra:



KULTURA /

Udalaren kultura zerbitzu eta ekipamenduak kudeatzea, herrian kultura-proiektuak sor eta finka daitezzen sustatzea eta laguntzea, bermatzeko kultura-eskaintza egonkorra eta kalitatezkoa dela, herritar orori zuzendua, eta, aldi berean, parte-hartze aktiboa eta lankidetzatza sustatzea.

KIROLAK/

Errenterian kirola sustatzea. Herritar orori benetako aukerak ematea hainbat kirol-modalitatetan parte hartzeko, hiru erabiltzaile mota bereizita: eskola-kirola, kirol federatua eta herritarrak orokorrean (guztionezako kirola). Kirol-jarduerak sustatzera bideratzen diren ahalegin eta ekimen guztiak koordinatzea.

HEZKUNTZA /

Proiektuak proposatzea eta sustatzea hezkuntza-komunitatearekin koordinatuta, eta ikastetxeen mantenua.

UDAL HIZKUNTZA POLITIKA /

Errenteriako hizkuntza ofizialen erabilera sustatzea; bermatzea euskara transmititzen dela egun hizkuntza gutxitua delako, euskararen erabilera sustatzea eta indarra har dezan beharrezkoa dena egitea.

BERDINTASUNA /

Emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzea. Bultzatzea eta planifikatzea desberdinkeriak desgertzen laguntzen duten eta Errenteriako herritarren artean berdintasuna sustatzen duten neurriak eta jarduerak.

GAZTERIA /

Parte-hartzea sustatzea, baliabideak eskaintzea eta ekimenak babestea, guztia ere Errenteriako gazteei zerbitzu integral individual eta kolektiboa emateko helburuarekin.

ANIZTASUNA /

Herrian sustatzea jatorri kultural desberdinetako pertsonen arteko kohesioa eta elkarbizitza. Zehazki, aukera-berdintasuna eskaintzea pertsona orori, edozein jatorri duela ere, eta diskriminazio-egoerak gerta daitezzen saihestea.



HERRITARREN BABESA /

Herritarren Babesa azpisaila

Polizia administratiboa burutzea ordenantza, bando eta bere eskumen-esparruko gainerako xedapen eta udal-egintzei dagokienez. Polizia judizialaren funtzioetan parte hartzea, polizia judizialeko unitateekin lankidetzan. Sorospena ematea istripuetan, hondamendietan edo hondamendi publikoko kasuetan, legeetan aurreikusi bezala parte hartuta babes zibileko planak gauzatzen. Prebentzioko dilijentziak burutzea, bai eta delitu-egintzak egin daitezten saihesteko jarduketak ere. Espazio publikoak zaintzea eta manifestazioak babesten eta pertsona-kontzentrazio handietan ordena mantentzen laguntzea, hala eskatzen dietenean. Gatazka pribatuak konpontzen laguntzea, hala eskatzen dietenean. Udaleko agintariak babestea eta Udalaren eraikinak zaintzea.

Babes Zibila azpisaila

Babes zibila, prebentzioa eta suteak itzaltzea. Arrisku larriko, hondamendiko edo hondamendi publikoko egoerak aztertzea eta prebenitzea, eta egoera horiek gertatzen direnean pertsonak eta ondasunak babestea. Babes zibileko udal-planak egitea, bai eta eskatzen dizkioten larrialdiko edo autobabeseko planak ere. Prebentzioko jarduerak eta hezkuntzako eta sensibilizazioko kanpainak koordinatzea babes zibilaren arloan. Brigada, talde edo boluntario-elkarteekin koordinatuta eta lankidetzan jardutea babes zibileko gaietan. Arlo honetan eskumenak dituzten beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta aritzea.

GIZARTE ZERBITZUAK/

Gizarte Zerbitzuen Zentroa da herrikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako duten sarbidea. Elkarrizketen eta etxeko bisiten bitartez, etxez etxeko langileek informazioa, balorazioa, diagnostikoa, orientazioa eta gizarte-laguntza eskainiko diete pertsoneri, hauen bidez:

- Sistemaren zerbitzuen eta prestazioei buruzko informazioa. Hauek dira eskatuenak eta ezagunenak: mendekotasunaren balorazioak, desgaitasuna, gizarte-inklusioa, emakumeen eta haur eta nerabeen babesa, etxez etxeko laguntza zerbitzua, gizarte-larrialdiko prestazio ekonomikoak eta mendekotasunaren prestazioak, egoitza-zerbitzuak, eguneko zentroak...
- Pertsonaren beharren eta potentzialtasunen balorazioa eta, egoki bada, egoeraren diagnostiko soziala egitea, zehaztuko duena egoera bakoitzean egin behar den esku-hartze sozialeko plana.
- Pertsonaren beharretarako egokienak diren zerbitzu edo prestazioei buruzko orientazioa, edo bien konbinazioa, edo egoki bada, beste babes sozialeko sistema batzuetako bitartekoetara deribatzea.
- Tramitazioa, kudeaketa eta koordinazioa burutzea, pertsona bakoitzak behar dituen zerbitzuak eta prestazioak jaso ditzan.

2.1 / pertsonak babestea, gizartea kohesionatzeko eta garapen iraunkorrerako elementu direlako

1. helburu estrategikoa

Gizarte baten garapen-maila, adierazle ekonomikoez gain, adierazle sozialekin ere neurtzen da. Gizarte batek pertsonak babesteko duen gaitasunak adierazten du gizarte horren kohesio-maila, eta garapen sozioekonomiko handiagorako bide ematen du. Hartara, ez da garapen sozioekonomikorik izango babesik edo gizarte-kohesiorik gabe, eta ez da gizarte-babesik izango garapen sozioekonomikorik gabe ere.

Helburu hau osatzeko zortzi jarduera osatuko ditu Udalak:

2.1.1 / GIZARTE-LARRIALDIKO LAGUNTZAK BERMATZEA

Gizarte-larrialdiko laguntzak dira gizarte-bazterketa saihesteko beharrezko prestazio ekonomikoak eta bideratzen zaizkie beren baliabideekin alokairuaren gastuei, hipoteka-kredituei, etxearen mantenuari eta antzekoei aurre egin ezin dieten pertsoneri, izan gastu horiek ohikoak edo ezohikoak. Eusko Jaurlaritzak da laguntza horiek estaltzeko eskumena duena, eta urtero kreditu bat aitortzen dio udalerreri bakoitzari eskaera kudea dezan; Errenteriaren kasuan, 2016an 413.189 eurokoa izan da.

Kreditu horrekin ez dira estaltzen herrian urtero jasotzen diren Gizarte Larrialdiko Laguntzen eskaera guztiak, eta Udalak bere gain hartzen du eskaera guztiei erantzuteko konpromisoa, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak emandako kreditua agortua egon.

2.1.2 / ENPLEGUA SUSTATZEA

Lan-munduan txertatzeko laguntzak. Konpromisoa hartzen dugu urtero partida bat bideratzeko lan-munduan txertatzeko laguntza behar dutenak kontratatzerara.

2.1.3 / UDALTZAINGOA – AUZOKO UDALTZAINGOA SUSTATZEA

Helburua da zerbitzuaren kalitatea hobetzea eta kalitatezko polizia izatea, herritarren zerbitzura dagoena, proaktiboa eta prebentziokoa, hurbilekoa, herritarrekin inplikazio handiagoa duena, gertukoa eta beste instantzia batzuekin koordinatuta jarduten dena.

Horretarako, sustatuko dira segurtasunarekin, trafikoarekin eta bide-segurtasunarekin lotutako jarduerak, polizia administratiboko jarduerak eta, azkenik, bitartekaritzako eta informazioko jarduera sozialak.

2.1.4 / IZTIETA-ONDARTXO AUZOAN GIZARTE-ERALDAKETAKO PLANA GAUZATZEA

Helburua da pertsonen babesa ulertzea zentzu integral eta transbertsalean. Ekintza-plan hau jarri da abian hainbat esparru hobetzeko erronkari erantzuteko xedearekin: espazio publikoa, auzoaren irudia, merkataritza biziberritzea, elkarbizitza eta pertsonen premiak.

Hartara, sinergiak sortzea auzoan bertan, hori izan dadin diagnostikatzen diren beharren inguruko aldaketan motorra

CENTRO MUNICIPAL DE SERVICIOS SOCIALES
Ayuntamiento de Bantoria / Errenteriako Udala
GIZAKIEN BEREHIZTUTARAKO UDAL BENTRADA





2.1.5 / HERRITARREN SEGURTASUNEAN PARTE HARTZEKO KONTSEILUA ABIAN JARTZEA

Herritarren segurtasunari dagokionean, prebentzioaren alde egiten dugu, eta horrek esan nahi du politika transbertsalak aplikatu behar direla eta polizia-politika soilak baino haratago joan. Horretarako, Herritarren Segurtasunean Parte Hartzeko Kontseilua eratuko dugu, Ertzaintzarekin eta Udaltzaingoarekin batera, Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna, Hezkuntza eta beste hainbat departamentu nahiz esparru horietan jarduten diren kolektibo edo elkarteak bilduta.

Eratutakoan, lehen zeregina izango da Errenteriako segurtasunari buruzko diagnostiko soziologiko bat burutzea.

2.1.6 / HERRITARREN SEGURTASUNARI BURUZKO AZTERLANA EGITEA

Herritarren segurtasunean parte hartzeko kontseilua eraturutakoan, lehen zeregina izango da Errenteriako segurtasunari buruzko diagnostiko soziologiko bat burutzea.

2.1.7 / GIZARTE ZERBITZUEN AHOLKULARITZA KONTSEILUA SORTZEA

Ezinbestekoa da gizarte-zerbitzuen eremuan herritarrek parte hartzeko Aholkularitza Kontseilua sortzea administrazioak pertsonak babestearen alorrean etorkizunean izango duen erronka handiari erantzuteko. Gero eta gizarte-premia gehiago dago eta gero eta ahalegin handiagoak egin behar dira premia horiei erantzuteko. Premia horiei guztiei ezin zaie erantzun hirugarren sektoreko elkarten partaidetzarik gabe.

2.1.8 / BALORATZEA ETXEGABETZEEN ETA POBREZIA ENERGETIKOKO EGOEREN AURREAN EMATEN DEN BABESA

Doako aholkularitza zerbitzua eta laguntza pobrezia energetikoko egoeran edo etxegabetzeko arriskuan daudentzat.

2.2 / herritar aktiboak izatea sustatzea pertsonek gaitasunak eta sormena gara ditzaten gizarte eraldekatarako tresna gisa

2. helburu estrategikoa

2.2.1 / LEKUONA-SORKUNTZA-FABRIKA ABIAN JARTZEA

Lekuona fabrika erabiliko da, Erreterria 2025 Plan Estrategikoari eta Erreterriaren bilakaera orientatzen duen “Erreterria ADN Kreaktiboa” markari jarraiki, sorkuntza intelektua, teknologiko, artistiko eta zientifikorako tokiko espazio gisa; sorkuntza-liburutegia, erakusketa-areto bat eta hitzaldi edo topaketetarako eta eskualde-intereseko bestelako erabileretarako espazio balioaniztunak izango ditu.

Bestalde, zentroa izango da Erreterriako kultura-proiektuen parte eta, ildo horretan, herriko kultura-mugimendu eta ekipamenduetarako topagune eta erakargune. Lekuona, Erreterriako azken industria-eraikina den Papelerarekin batera, leku enblematikoa da Erreterriaren irudi berria proiektatu eta lurraldea kulturatik eraldatzeko. Proiektu hau hirigunea rekuafikatzeke e ta i baiaren a urrealdea i ndartzeko (ibaia udalerrria antolatzen duen ardatz gisa hartuta) proiektu estrategikoaren parte da eta Pasaiaiko Badiaren biziberritzearen baitan egoteaz gain, kultura sustatzen du, garapen ekonomikoa, ekintzailtza eta Erreterriako herritarren ikaskuntza eta bizi-kalitatea hobetzeko bideratzaile gisa.

2.2.2 / KIROLAREN PLAN INTEGRALA PRESTATZEA ETA GARATZEA

Azken urteetan gure bizimoduan izan ditugun aldaketen ondorioz, hausnarketa bat egin behar da, kirola egitea fenomeno sozial bihurtu baita. Diagnostiko kolektiboa egiteko beharra justifikatuta dago gabeziak e gon d irelako jardueira sustatzeak gizartean duen eragina aitortzerakoan, eta premiazkoa delako ekarpen horri balioa ematea. Gainera, kirol-jarduerak, jolas-itxurarekin, gaur egun bizikidetzarako ezinbestekoak diren ikaskuntzak transmititu izan ditu.

Plan honen helburua da jarduera fisikoa garatzea herritarren dinamismoa sustatzeko, kide izatearen sentimendua indartzeko eta ohitura osasungarriak sustatzeko hainbat jarduera-esparrutan: hirugarren adina, eskola-kirola eta kirol federatua, guztiontzako kirola, osasuna, hirigintza...



2.2.3 / EMAKUMEEN ETXEA ZABALTZEA

Errenteriako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako lehen nahiz bigarren planean jasotzen da emakumeek emakumeentzako erreferentzia-espazio bat sortzeko duten interesa eta nahia; alegia, etxe bat eraikitzea adin, jatorri eta klase sozial desberdinetako emakumeen topagune izan dadin. Emakumeek emakumeentzako pentsatutako espazioa.

Horregatik, prozesu parte-hartzaile bat jarri da abian horrelako espazio edo ekipamendu bat beharrezkoa den hausnartzeko: zer beharri erantzun behar dien, zer funtzio bete beharko lituzkeen, zer ezaugarri izango duen, zertarako erabiliko den, nolako kudeaketa izatea komeniko lituzatekeen, etab. Eta hausnarketa hori egin da balizko “erabiltzaile” izango diren pertsona eta erakunde nagusiekin: Errenteriako (eta eskualdeko) emakumeak; emakume talde edo talde feministetan antolatutakoak; esparru sozio-politikoan parte-hartze aktiboa dutenak (sindikatuak, alderdi politikoak, elkarteak, gizarte-mugimenduak); erakundeekin

solaskide diren organoetan parte hartzen dutenak (Errenteriako Berdintasun Kontseilua)... Eta prozesu honekin ezarriko dira Errenteriako Emakumeen Etxearen oinarriak.

2.2.4 / GAZTERIA PLANA EGITEA

Plan bat egitea biztanleriaren sektore jakin baten beharrak aztertzeko, zehazki, haur, nerabe eta gazteen beharrak. Planaren helburua da haur eta gazteak ahalduntzea eta subjektu aktibo gisa parte har dezaten gure herriaren eraikuntzan.

Hiru parte-hartze prozesu jarriko dira abian, adin-tarte bakoitzerako bat. Hausnartuko dute eta eztabaidatuko dute hainbat gairen inguruan: haur-parkeen egoera, aisialdi-eraketa, emantzipazioa, lan-munduratzeko, etab. Helburua da gabeziak identifikatzea eta etorkizunerako erronkak ezartzea. Planean jasoko dira erronka horiek gauzatzeko bideak eta identifikatuko dira jarduketako bakoitzerako oinarriak.



2.2.5 / UDAL HIZKUNTZA POLITIKAKO PLANA GARATZEA

Erreterian euskara ezagutzen dutenen indizea da % 36, eta horrek eragiten du komunitate euskalduna herrian difuminatuta geratzea eta hizkuntza erabiltzea oso zaila izatea (% 12 inguru). Gainera, komunikabide gehienek ez dute sustatzen euskararen erabilera.

Udal hizkuntza politikako plan honek helburu hirukoitza du: alde batetik, euskararen transmisioa bermatzea, familiaren, eskolaren eta euskaltegietako euskalduntzearen eta alfabetatzearen bidez; bestetik, euskararen erabilera sustatzea eta normalizatzea herriaren egunerokotasunean (administrazioa, aisia, kirola, lan-mundua), eta, azkenik, hizkuntzaren corpusa elikatzea hizkuntza erabilgarria izan dadin, sustatuta komunikabide, liburu, aldizkari eta antzekoetan erabil dadin.

2.2.6 / GALTZARABORDAKO UDAL-KIROLDEGIA HANDITZEA

Erreteriak historikoki beti izan du kirol-entitateen beharrei erantzuten dieten kirol-instalazioetan gabeziak, nagusiki indoor eskola kirolaren eta kirol federatuaren esparruan.

Hartara, proposatu da udal-kiroldegia zabaltzea Galtzarabordako ibarbideraino, indoor pista berria eraikita. Kiroldegiaren instalazioak kokatuko lirateke ibarbidearen hondoan eta lehenetasuna emango zaio entrenamendurako eta lehiaketarako erabiliko den pistaren eremuari, pista balioaniztun batekin; rokodromoa, aldagelak eta urbanizazio egingo dira. Obra hau egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzazioa jaso beharko da “Kirol ekipamenduen plana 2017-2019” planaren baitan

2.2.7 / BERAUNGO KULTURA-ETXEA ZABALTZEA

Gure ustez kultura herritarrei hurbildu behar zaie, eta hori da gure apustua: liburutegi-sarea deszentralizatzea eta kultura-etxe bat eraikitzea Beraunen, goiko auzoei zerbitzu emateko. Kultura-etxe horrek eskainiko ditu liburutegi baten zerbitzuak eta kultura-ekintza zabala ere sustatuko du.

2.2.8 / BERAUNGO FUTBOL-ZELAIA ETA ATLETISMO-ESTADIOA GUZTIZ ERABERRITZEA

“Mikel Odriozola” atletismo-estadioa eta Beraungo futbol-zelaia 1991n inauguratu ziren. Denborak eta asko erabiltzeak eragin dute ekipamendu horrek egun hainbat gabezia izatea bere instalazioetan eta, ondorioz, instalazio horiek guztiz eraberritu behar izatea.

Planteatzen da hainbat birgaitze-obra egitea: atletismo-pistan zoladura berria jartzea, belar artifiziala aldatzea, aldagelen eraikina eraberritzea... Halaber, planteatu da pistaren iparraldea estaltzea. Eraberritzearen irismena baldintzatuko du “Kirol Ekipamenduen 2017-2019” foru-programan sartzeak ala ez sartzeak.

2.2.9 / ESKOLA KONTSEILUA ETA HEZKUNTZA PLANA ABIAN JARTZEA

Espazio bat sortzea hezkuntza komunitatea bildu eta era koordinatuan jarduteko eta sinergiak sortzeko, elkarrekin erantzuteko hezkuntza-beharrei.

Ikastetxe guztietako ordezkariekin jarri da martxan kontseilu bat (zuzendaritza administratiboa eta akademikoa, guraso-elkarteak, ikasleen eta irakasleen ordezkariak), aztertzeko udalerriko hezkuntza-errealitatea eta ezartzeko datozen urteetarako erronkak. Hiruhilero egiten dira bilerak.



2.2.10 / EKINTZAILETZA KOLABORATIBOA ETA HAINBAT SEKTORETAKO MARTXAN JARTZEA

Ekintzailletza tokiko garapena eta enplegu-sorkuntza laguntzen dituen tresna denez, lehentasunezkoa da Erreneria 2025 Plan Estrategikoa. Aktibatu beharra dago enpresa berriak sortuko badira eta, horregatik, apustua da testuiguru egokia eskaintzea ekintzailletza sustatzeko gaitasun endogenoak dinamizatzeko elementu gisa.

Horrez gain, Erreneria 2025 Plan Estrategikoak proposatzen du manufaktura-jarduera, artisau-jarduera eta jardue-
ra kreatiboa finkatu eta bultzatzea, ekonomia soziala laguntzeko. Ekintzailletza Poloaren xedea da, hain zuzen ere, lankidetzako ereduak sustatzea udalerraren ADN kreatibo eta berritzailearen baitan bil daitezkeen jarduera guztietan.

Azken batean, Erreneriako Ekintzailletza Poloa toki-garapenerako tresna izango da, eta jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzen dituzten eta laguntza eta babesa merezi dituzten profesional indibidual eta mikroenpresei zuzentzen zaie.

Ekimen hauek osatzen dute Poloa:

- Sorkuntza digitalean espezializatutako haztegia (TALENT HUB, behin-behineko izena).
- Industria-teknologia aurreratuan espezializatutako haztegia.
- Eskulangintza-jardueretan espezializatutako haztegia.

Ekimen hauek Oarsoaldea S.A., Tknika eta Don Bosco, AEG eta Politécnica Easoren lankidetzak izango dute eta burutuko dira, besteak beste, Torrekua eraikinean eta Angel de la Guarda zentroan.

2.2.11 / KAPITAIN ETXEA JANTZIAREN ZENTROA ABIAN JARTZEA

Iraultza Dantza Taldeak, Euskal Herriko kultura eta tradizioak berrekuratzeko ahaleginean, urteetan ikerketa-lan sakona egin du jantzi tradizionalak berregiteko eta jada 400 jantzi baino gehiago ditu bilduman. Proiektu hau sortu zen publikoari behar bezala erakusteko ondare-aberastasun hau eta inguru honetako kultura-eskaintza aberasteko, horrela eskualdeko museo eta zentrozen arteko sinergiak lagunduta.

Horrela, proiektu honek azalduko du jantziaren bilakaera historikoa, inplikazio sozialak aztertuta, guztia ere jantzeko praktikaren aniztasunaren eta etengabeko aldaketaren bidez.

2.2.12 / HILTEGIA ZENA BIRGAITZEA ARRAUNERAKO ETA BESTELAKO UR-KIROLETARAKO ERABILTZEKO

Aurreikusita dago 2017an idaztea hiltegia zena birgaitzeko proiektua, arraunerako eta bestelako ur-kiroletarako erabili ahal izateko. Obra burutuko da 2018an eta 2019an.







3 / lurraldea



GALERIAS

*“Hiriak gai dira biztanle bakoitzari zerbait emateko guztiontzat
sortzen direlako eta horrela sortzen direnean soilik”*

Jane Jacobs, hirigintzako teorialaria



Lurraldea arloak bere gain hartzen du elementu komun bat duten gai ugariaren gaineko ardurak; elementu hori da lotura berezi eta zuzena duela herritarren eguneroko bizimoduaren oinarriarekin, nahitaez ingurune fisiko batean gertatzen baita, lurralde batean.

Horregatik, gobernu-ekintza honetatik hartzen diren erabakiek eragin oso nabarmena dute udalerriko biztanle ororen bizi-kalitatea hobetzeko.

Lurraldea arloan txertatzen diren gai nagusiak sail eta azpisail hauetan bil daitezke:

HIRIGINTZA /

- Lizentziak eta aurrekomunikazioak (obrak, jarduera-zabaltzeak, kalea okupatzea, banatzeak, etab.).
- Higiezinaren segurtasun-baldintzak kontrolatzea (betearazteko agindua, aurri-adierazpena).
- Eraikuntzen azterketa teknikoa.
- Hirigintza-plangintza eta hirigintza-kudeaketa.
- Lurzoruaren udal-ondarea.
- Hirigintzako kontsultak.
- Lurraldean eragina duten udalaz gaindiko proiektuak.
- Hondakinen bilketa. Birziklatzea.

HIRI MANTENIMENDUA (OBRAK ETA ZERBITZUAK) /

- Udal-azpiegitura eta -sareak (bideak, ur-hornidura, saneamendua, etab.).
- Kaleko argiak eta semaforoak.
- Lorezaintza eta hiri-ekipamendua.
- Udal-eraikinak.
- Obretako udal-brigada.
- Udalaren obra publikoko proiektuak eta horien kontratazioa.
- Kale-garbiketa.

INGURUMENA /

- Plan, programa eta proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedurak.
- Biodibertsitatea: mendiak, larreak, lurralde-politika, basoak, ehiza eta natura kontserbatzea (habitatak eta espezieak) eta eremu babestuak kudeatzea (Aiako Harria parke naturala, Lau Haizeta parkea, Natura 2000 sarea, Korridore ekologikoen sarea...).
- Energía (eficiencia y ahorro, y energías renovables) y cambio climático.
- Hondakinak (prebentzioa, birziklatzea, konpostatzea...).
- Landa-garapena: nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren lizentziak eta obra-lizentziak, isuriak, betelanak, zaborteziak...
- Kutsadura: lurzorua, ura, atmosfera, zarata...
- Iraunkortasuna: Tokiko Agenda 21, Eskola Agenda 21, Udalaren ingurumen-estrategia, erosketak eta kontratazio publiko berdearen udal-politika.

TRAFIKOA ETA GARRAIOA /

Ibilgailuen eta pertsonen bide publikoko trafikoa antolatzea. Bide publikoen erabilera arautzea (aparkalekua, oinezkoentzako mugak, hiri barruko bideak ixtea, etab.). Lur gaineko aparkalekuak kudeatzea. Bideak asfaltatzea eta seinaleztapen bertikala eta horizontala. Bidaiarien garraio publikoa. Bidaiarien hiri barruko garraio-zerbitzuen eta auto-taxi zerbitzuen kudeatzea eta antolatzea.

- Trafikoa.
- Mugikortasuna eta aparkalekua.
- Hiri barruko garraioa.
- Kaleak asfaltatzea.
- Txostenak: kalearen okupazioa, mahaitxoak...





URBANCA

ENTRADA

SARRERA

WITTEBA
LAVIA
CONGREGA
BANCIA DE B
LAVIA
CONGREGA
BANCIA DE B

LAVIA
CONGREGA
BANCIA DE B
LAVIA
CONGREGA
BANCIA DE B



3.1 / garapen sozioekonomikoaren aldeko apustua

1. helburu estrategikoa

Lehen helburuaren baitan bi ekintza aurreikusi dira: gune historikoa berritzea, erakartzeko elementu gisa, eta Merkataritza suspertzeko plan berezia.

3.1.1 / GUNE HISTORIKOA BERRITZEA

Lehen ekintza gauzatzeko arkitekto bat kontratatu da; gune historikoaren gabeziarik nabarmenenen diagnostikoa egiten ari da, esparrua bera nahiz bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko. Ildo horretan, baloratzen ari gara gizarte-kalteberatasuneko egoeran dauden adinekoentzako ostatu-zerbitzuak diseinatzeko aukera. Guztia ere merkataritzaren eta zerbitzuen erakarpen-polo bat ere sortzeko. Bereziki, artisautzako jardueretarako erakargarria izan behar du. Bizilagunen parte-hartzearekin definituko da plan bat elementu erakargarri gisa, eta hori gauzatzeko suposatuko du lan espezializatua sortzea eraikuntzaren esparruan.

3.1.2 / MERKATARITZA SUSPERTZEKO PLAN BEREZIA

Erreteriak indartu egin behar du zerbitzuen sektorea eta erreferentziako eta kalitateko gune batean kokatu; izan ere, gai horren inguruan egindako azterlanen arabera, sektore hori da gure jarduera ekonomikoaren zatirik garrantzitsuenak. Horregatik, sektoreko agenteen partaidetzarekin, Merkataritza Suspertzeko Plan Berezia idatziko dugu Erreteriarako.

Bigarren ekintza honetan urtero merkataritza suspertzeko egintzak burutzen dira Erreteria 2008ko merkataritza suspertzeko plan bereziaren baitan. Ildo horretan, urtero aztertzen da zein diren urte bakoitzean burutu beharreko ekintzarik garrantzitsuenak. Plan hori 8 urterako aurreikusenez, lehenetsua eman zaio plan berri bat egiteari.



3.2 / pertonentzako ingurune iraunkorra sustatzea

2.helburu estrategikoa

Bigarren helburuaren baitan hamahiru ekintza aurreikusi dira:

3.2.1 / HONDAKINEI BURUZKO UDAL ORDENANTZA PRESTATZEA ETA EZARTZEA

Hondakinen ordenantza berria egiten ari gara eta bertan bilduko dira Europako batzordearen jarraibideak bete eta % 60ko gaikako bilketara iristeko neurriak.

Azken batean, ekonomia zirkularraren inguruan Batasunean onartutako irizpideak ezarriko dira, printzipio gisa hartuta hondakinak gutxitzea eta birziklatzea, eta lehen-gaiak eta baliabide naturalak berreskuratzea eta aurrezte balarizatzeke: txartel elektronikodun edukiontzi grisa, sortzaile handientzako bilketa, gaikako bilketa orokortzea, etxeko hondakin handien eta arriskutsuen bilketa hobetzea...

3.2.2 / ENERGIA IRAUNKORRAREN EKINTZA-PLANA BETETZEA

2015eko maiatzean onartu zuen Erretereriak energia iraunkorraren ekintza-plana, definitzen duena isuri gutxiko ibilbidea, udalerriri aukera emango diona 2012an Alkateen Europako Itunari atxiki gintzaizkionean hartutako konpromisoa betetzeko: berotegi-efektuko gasen emisioa % 20 murriztea 2007. urtearen aldean.

Ekintza-planak 80 neurri biltzen ditu, 8 lerro estrategikotan banatuta: eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarriak, mugikortasuna, hondakinak, lehen sektorea, sektore transbertsala, ura eta natura-ingurunea. Guztiak ere hiru sektore gaketan kokatzen dira: Udala, egoitza-sektorea eta zerbitzu-sektorea.

Bestalde, 2015eko irailean Erretereriako Udala atxiki zitzaion Nazio batuen Compact of Mayors ekimenari, klima-aldaketaren aurkako tokiko ekintzari anbizio, lankidetzaz eta iraunkortasun handiagoa emateko.

Compact of Mayors ekimenari atxikitako udalerriek konpromisoa hartzen dute alderdi hauei buruz informazio publikoa emateko:

- * Gure udalerraren berotegi-efektuko gasen isurien inbentarioa, berotegi-efektuko isurien inbentarioen dimensio komunitarioako Protokolo Globalarekin bateragarria dena, hemendik urtebeterra edo gutxiagora
- * Gure udalerrak aurre egin behar dien klima-arriskuak
- * Berotegi-efektuko gasen isuriak gutxitzeko gure helburua
- * Gure udalerraren klimaren arloko ahultasunak

Ekintza honek Energiaren Euskal Erakundearen diru-laguntza txiki bat du eta Foru Aldundiak Pasaialdea biziberritzeko diruz lagundutako jarduketaren baitan egon daiteke, baina zenbatekoa oraindik ez dago zehaztua.

3.2.3 / APARKALEKUAK ERAIKITZEA ERDIGUNEAN ETA IGANTZIN

Doako aparkaleku libre berriak eraikiko ditugu erdigunean 100 ibilgailurentzako, eta Igantzi auzoan, 38 ibilgailurentzako. Azken hori jada burututa dago.

Aparkaleku berria herriaren sarreran egongo da, eta funtzio bikoitza izango du; batetik, aldirietako eta errotazioko aparkalekua izatea kanpotik datozenentzat, eta, bestetik, bertakoen aparkaleku-eskaerei erantzutea. Baterako finantzazioa egin daiteke aparkaleku-plaza batzuk emakida administratiboan aterata.

Igantzi auzoan ur-tanga zenak okupatutako espazioa aprobetxatu da lur gaineko aparkaleku bat egiteko.

3.2.4 / ALABERGA GOIA ETA BEHEA LOTZEKO IGOGAILUA ERAIKITZEA, ETA BESTE BI IGOGAILU ERAIKITZEA GOIKO EREMUAN

2016an hasi dira Alaberga goia eta behea lotuko dituen igogailua eraikitze lanak, eta 2017an amaituko dira.

Alabergan irisgarritasuna hobetzeko proiektuan bi igogailu egitea aurreikusten da eta proiektu hori jasota dago Errenteriako irisgarritasun-plana zabaltzeko igogailuak ezartzeko planean. Plan horrek aipatutako kokalekurako proposatzen du bi igogailu jartzea Alaberga auzoaren beheko aldearen eta goikoaren artean. Azkenean erabaki da proiektu bat bi fasetan gauzatzea auzoaren erdialderago dagoen beste kokaleku batean.

1. Urdaburu / Galtzaraborda etorbidea. Igogailu bakarra egingo da Urdaburu kaleko 23.etik abiatuta (Galtzarabordako parkea, auzoaren erdigunea) Jaizkibel kalera ino igotzen dena, 12. zenbakira, eta hortik Galtzaraborda etorbidearekin bat egiten duena; Beraungo igerilekuei eta osasun-zentroari emango die zerbitzu.

2. Norberto Almándoiz-Aita Donostia / Beraun. Igogailu honek lotuko ditu Beraungo auzoko beheko eta goiko aldea hegoaldeetik eta, aldi berean, orografia konplexua eta erai-kinen itxurak baldintzatuta, tarteko kaleei zerbitzu emango die. Proposatutako igogailua Beraun kaleko 3.aren aldamenean dago eta aukera ematen du atari horren eta Norberto Almandoz kalearen eta Aita Donostiaren arteko desnibela gainditzeko; halaber, pasabide baten bidez aukera ematen du Juan Crisostomo Arriaga kaleko atarietara iristeko eta, beste pasabide baten bidez, Beraun-Berri Ikastetxera eta Aita Donostiako atzealdeko ataripeetara.

Jarduketa honek auzoa lotzen du; auzoko eremu nagusi eta komertzialenerako sarbidea egokiagoa izango da beheko eremuetatik

3.2.5 / BARANDIARAN PARKEA ERAIKITZEA ETA ARRAMENDI PARKEA HOBETZEKO AUKERAK AZTERTZEA

Konpromisoa hartzen dugu Barandiaran parkea eraikitzeke, herritarren parte-hartze prozesuaren ondorengo proiektuaren arabera. Halaber, Arramendi parkea birdefinituko dugu, espazioa eta erabilera hobetzeko, hau ere parte-hartze sozialaren bidez.

Barandiaran parkearen proiektuarekin amaitzeko 12 area: Pontikako Ibarra area garatzeko plangintzan aurreikusitako espazio libreak urbanizatzeko jarduketak burutuko dira. Planteatzen da Pekingo errekaen zati bat aire zabalean berreskuratzea eta parkeko elementu nagusi bihurtzea. Proiektuak eremu bereziak planteatzen ditu

egoteko, aisiarako, paseatzeko, haurrak jolasteko eta bestelakoetarako; halaber, paisaia berreskuratzea ere planteatzen du.

Hiriko azpiegitura berdea hobetzearren, egokituko da parke publikoen sarea, aisiarako, atsedenerako eta sozializatzeko kalitatezko espazio diren aldetik, adin-tarte guztietarako irisgarritasuna, biodibertsitatea eta egonaldiaren kalitatea bezalako irizpideak baliatuta.



3.2.6 / OIARTZUN IBAIA HOBETZEA: JARDUNAK ONDARTXON ETA FANDERIAKO INTERPRETATIO- ZENTROAN, ETA OIARTZUN IBAIAREN PLANA BURUTZEA

Duela gutxi onartutako Oiartzun ibaiaren inguruneko Paisaia Plana betetzeko, jardun garrantzitsuak egingo dira ibaiaren azken tartean –Ondartxo–; horrez gain, interpretazio-zentro bat eraikiko da Fanderiako Errotan. Aipatutako planean aurreikusitako beste hainbat ekintza ere burutuko dira.

Ibaiaren interpretazio-zentroa Fanderiako errotan (XVI. mendea) egongo da, eta helburua da abian jartzea jada badauden azpiegitura eta makina hidraulikoak erabilera sozialerako; natura- eta kultura-ondareari lotutako interpretazio-ekipamenduak eta ostalaritzako zerbitzu berritzailea jarriko dira. Bisita gidatuak egingo dira eta Fanderian geltoki berde baten irudia garatuko da, Arditurriko bide berdeari lotuta.

3.2.7 / ATERPETXEAREN PROIEKTUA IDAZTEA

Proposatzen dugu udal-aterpetxe bat eraikitzea, gure udalerrian dagoen alojamenduen gabezia handiari irtenbidea bilatzeko.

Gurea bezalako biztanleria duen udalerrri batek alojamendu-eskaintza handiagoa eduki behar du, edozein udalerriren funtzionamendurako ezinbestekoak diren merkataritzako, negozioko, aisiako edo kulturako jarduerak babestu eta sustatzeko.

3.2.8 / KOMUN PUBLIKOEN SAREA EZARTZEA UDALERRI OSOAN

Egun badauden komun publiko autogarbigarrien jarraipen gisa, aztertu da zein eremutan diren beharrezkoagoak. Eremu horien artean nabarmentzekoak dira Beraunen, Ondartxon, Fanderian eta Galtzarabordan dauden komunak. Lartzabalerako berria planteatu da, eta udalerrri guztian zehar jarraituko da.

Udalak jarriak ditu komun publikoak jende asko ibiltzen den lekuetan, adibidez, plazetan eta oinezkoen pasealekuetan, existitzen ez den zerbitzu publiko bat emateko eta aisia eta kirolean laguntzeko, oinez ibiltzea bezalako ohitura osasungarriak sustatuta.

3.2.9 / URTEKO MANTENU-PLANA FORMULATZEA ETA PLANAREN JARRAIPENA EGITEAREN ARDURADUNA IZENDATZEA

Proposatzen da Hiri Mantenimenduan zerbitzuen eta hiri-altzari guztien urteko plan bat prestatzea. Plana hiru jarduketa-multzotan banatuko da:

1.- ZERBITZUAK: kontratatutako enpresek burututako zerbitzuen mantenuaren kudeaketa ere bilduko du (kale-garbiketa eta hondakinen bilketa, lorategien mantenua, ikastetxeen eta udal-bulegoen garbiketa eta desratizazioa)

2.- HIRI MANTENUA: hiri-altzariak eta bulegoak mantentzea brigadek (espaloiak berritzea, haur-parkeak, bankuak berreskuratzea, barandak margotzea, argiak mantentzea, biribilguneak mantentzea, hornidura-sarea konpontzea, etab.)

3.- HOBETZEKO INBERTSIOAK: mantenu-planaren baitan urteko partida bat sartuko da inbertsioetarako, eta erabiliko da saneamendu-sarea, hornidura-sarea eta instalazio elektrikoak hobetzeko, hiri-altzariak berritzeko eta urbanizazio txikiak hobetzeko.

3.2.10 / ERRETERIAKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA BERRIKUSTEA

Errenteriako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren dokumentua 2004ko otsailaren 3an onartu zuen behin betiko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak. 13 urte joan dira jada. Plan hori onartuz geroztik onartu zen Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan hirigintza arautzen duena. Plan Orokorra indarrean dago oraindik, berrikusten edo aldaketaren bat indarrean sartzen den arte, nahiz eta horrelako planak zortzi urterako planteatu ohi diren. Edonola ere, denbora luzea pasa denez, antolamendua berrikusi behar da hirigintza-araudi berrira eta egungo egoera sozial eta ekonomikoetara egokitzeko.

3.2.11 / BIZIKLETARI ETA OINEZKOEN MUGIKORTASUN PLANAK PROPOSATUTAKO BIZIKLETA-SARE NAGUSIA GARATZEA

Ekitaldi bakoitzean inbertsio bat aurreikusita dago egungo bizikleta-sarea luzatzeko eta Planeko aurreikuspenak gauzatzeko. Biteri kalea eta erdigunea Alaberga auzoarekin, batetik, eta Galtzarabordako kiroldegiarekin, bestetik, lotzen dituzten trazatuak burutuko dira.

antolaketa

pertsonentzako administrazio berria sortzea

helburu estrategikoa

1 /
UDALA BERRANTOLATZEA

2 /
ZUZENDARITZA TALDE
POLITIKO-TEKNIKOA SORTZEA

3 /
UDALAREN AURREKONTUA
PRESTATZEA HELBURUEN
ARABERA

4 /
ADMINISTRAZIO
ELEKTRONIKORAKO TRANTSIZIO-
PLANA PRESTATZEA

5 /
HERRITARREN ARRETA
INTEGRALERAKO ZERBITZUA
EZARTZEA

6 /
UDALAREN ARAUDI ORGANIKOA
BERRIKUSTEA, HERRITARREN
PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO

7 /
GARDENTASUNAREN ATARIA.
ABIAN JARTZEA ETA MANTENTZEA

8 /
INFORMAZIOA ETA DATUAK MODU
IREKIAN ZABALTZEA: OPEN DATA

9 /
UDAL KIROL PATRONATUA
DESEGITEA ETA UDALEKO
AZPISAILEAN TXERTATZEA

10 /
ERRENTERIA MUSIKAL UDAL
PATRONATUAREN ANALISIA

11 /
GIZA ESKUBIDEAK
ERRESPETATZEKO
ETA SUSTATZEKO KULTURA
DEFENDATZEA, ERRENTERIAN
MEMORIA HISTORIKOA
BERRESKURATUTA

JARDUNAK	AURREKONTUA	DIRU-LAGUNTZAK	ARDURADUNAK	2015	2016	2017	2018	2019
1 / Udala berrantolatzea	Aurrekontu arunta	–	Alkatea, Lehendakaritza zinegotzia Idazkari Nagusia					
2 / Zuzendaritza talde politiko-teknikoa sortzea	Aurrekontu arunta	–	Alkatea Idazkari Nagusia					
3 / Udalaren aurrekontua prestatzea helburuen arabera	15.000€	–	Ogasun zinegotzia Kontu-hartzailea					
4 / Administrazio elektronikorako trantsizio-plana prestatzea	227.890€	–	Informazio Gizartearen zinegotzia Idazkari Nagusia, Informazio Gizartearen teknikaria					
5 / Herritarren arreta integralerako zerbitzua ezartzea	280.000€	–	Informazio Gizartearen zinegotzia Informazio Gizartearen teknikaria					
6 / Udalaren araudi organikoa berrikustea, herritarren parte-hartzea sustatzeko	Aurrekontu arunta	–	Lehendakaritza zinegotzia Idazkari Nagusia, Informazio Gizartearen teknikaria					
7 / Gardentasunaren ataria abian jartzea zeta mantentzea	10.890€	–	Informazio Gizartearen zinegotzia Informazio Gizartearen teknikaria					
8 / Informazioa eta datuak modu irekian zabaltzea: Open Data	Aurrekontu arunta	–	Informazio Gizartearen zinegotzia Informazio Gizartearen teknikaria					
9 / Udal Kirol Patronatua desegitea eta udaleko azpisailen txertatzea	Aurrekontu arunta	–	Kirol zinegotzia Idazkari Nagusia					
10 / Erreterria Musikal Udal Patronatuaren analisisa	Aurrekontu arunta	–	Patronatuaren lehendakaria eta Zuzendari-kudeatzailea, Idazkari Nagusia, Lege aholkularia					
11 / Giza eskubideak eta memoria historikoa	82.000€	–	Arbibo zinegotzia Arbibo teknikaria					

herritarrak

pertsonak babestea

1. helburu estrategikoa

1 /
GIZARTE-LARRIALDIKO
LAGUNTZAK BERMATZEA

2 /
ENPLEGUA SUSTATZEA

3 /
UDALTZAINGOA – AUZOKO
UDALTZAINGOA SUSTATZEA

4 /
IZTIETA-ONDARTXO AUZOAN
GIZARTE-ERALDAKETARAKO
PLANA GAUZATZEA

5 /
HERRITARREN SEGURTASUNEAN
PARTE HARTZEKO KONTSEILUA
ABIAN JARTZEA

6 /
HERRITARREN SEGURTASUNARI
BURUZKO AZTERLANA EGITEA

7 /
GIZARTE ZERBITZUEN
AHOLKULARITZA KONTSEILUA
SORTZEA

8 /
BALORATZEA ETXEGABETZEEN
ETA POBREZIA ENERGETIKOKO
EGOEREN AURREAN EMATEN DEN
BABESA

JARDUNAK	AURREKONTUA	DIRU-LAGUNTZAK	ARDURADUNAK	2015	2016	2017	2018	2019
1 / Gizarte-larrialdiko laguntzak bermatzea	4.411.487€	2.402.312€	Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia Gizarte Zerbitzuetako teknikaria					
2 / Enplegua sustatzea	2.500.000€	1.850.000€	Alkate / Lehendakaritza zinegotzia Giza Baliabideetako teknikaria / Mantenuko tek.					
3 / Udaltzaingoa – auzoko Udaltzaingoa sustatzea	Aurrekontu arrunta	–	Alkate Udaltzaingoa teknikaria					
4 / Iztieta-ondartxo auzoaren eraldaketarako plana gauzatzea	20.400€	–	Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia Komunitate-bizikidetzako teknikaria					
5 / Herritarren Segurtasunean Parte Hartzeko kontseilua abian jartzea	Aurrekontu arrunta	–	Alkate Idazkari Nagusia					
6 / Herritarren segurtasunari buruzko azterlana egitea	30.000€	–	Alkate Udaltzaingoa teknikaria					
7 / Gizarte zerbitzuen Aholkularitza kontseilua sortzea	Aurrekontu arrunta	–	Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia Gizarte Zerbitzuetako teknikaria					
8 / Baloratzea etxegabeteen eta pobrezia energetiko egoeren aurrean ematen den babesa	Aurrekontu arrunta	–	Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia Gizarte Zerbitzuetako teknikaria					

herritarrak

herritar aktiboak izatea sustatzea

2. helburu estrategikoa

1 /
LEKUONA-SORKUNTZA-FABRIKA
ABIAN JARTZEA

2 /
KIROLAREN PLAN INTEGRALA
PRESTATZEA ETA GARATZEA

3 /
EMAKUMEEN ETXEA ZABALTZEA

4 /
GAZTERIA PLANA EGITEA

5 /
UDAL HIZKUNTZA POLITIKAKO
PLANA GARATZEA

6 /
GALTZARABORDAKO
UDAL-KIROLDEGIA HANDITZEA

7 /
BERAUNGO KULTURA-ETXEA
ZABALTZEA

8 /
BERAUNGO FUTBOL-ZELAIA
ETA ATLETISMO-ESTADIOA
GUZTIZ ERABERRITZEA

9 /
ESKOLA KONTSEILUA ETA
HEZKUNTZA PLANA ABIAN
JARTZEA

10 /
EKINTZAILETZA KOLABORATIBOA
ETA HAINBAT SEKTORETAKO
MARTXAN JARTZEA

11 /
KAPITAIN ETXEA JANTZIAREN
ZENTROA ABIAN JARTZEA

12 /
HILTEGIA ZENA BIRGAITZEA
ARRAUNERAKO ETA BESTELAKO
UR-KIROLETARAKO ERABILTZEKO

JARDUNAK	AURREKONTUA	DIRU-LAGUNTZAK	ARDURADUNAK	2015	2016	2017	2018	2019
1 / Lekuona Sorkuntza-fabrika abian jartzea	8.455.422,20€	–	Alkatea , Kultura zinegotzia Hirigintza, Kultura eta Liburutegi teknikariak					
2 / Kirolaren plan integralala prestatzea eta garatzea	180.000€	–	Kirol zinegotzia Kirol teknikaria					
3 / Emakumeen etxea zabaltzea	700.000€	–	Berdintasun zinegotzia Berdintasun teknikaria					
4 / Gazteri plana egitea	120.000€	–	Gazteri zinegotzia Berdintasun teknikaria					
5 / Udal hizkuntza politikako plana garatzea	Aurrekontu arunta	–	Hizkuntza politika zinegotzia Hizkuntza politika teknikaria					
6 / Galtzarabordako kiroldegia handitzea	1.500.000€	600.000€	Kirol zinegotzia, Hirigintza zinegotzia Kirol teknikaria, Hirigintza teknikaria					
7 / Beraungo kultur-etxea zabaltzea	694.000€	–	Arxibo, Dokumentazioa eta Liburutegi zinegotzia Liburutegi arduraduna					
8 / Beraungo futbol-zelaia eta atletismo-estadioa guztiz eraberritzea	1.200.000€	600.000€	Kirol zinegotzia, Hirigintza zinegotzia Kirol teknikaria, Hirigintza teknikaria					
9 / Eskola Kontseilua eta Hezkuntza plana abian jartzea	Aurrekontu arunta	–	Hezkuntza zinegotzia Hezkuntza teknikaria					
10 / Ekintzailatza kolaboratiboa eta hainbat sektoretakoa abian jartzea	600.000€	–	Alkatea Oarsoaldeako arduradun teknikoa					
"Ángel de la Guarda" zentroaren abiaraztea	Aurrekontu arunta	–	Alkate Oarsoaldeako arduradun teknikoa					
"Torrekua" abiaraztea. Teknologia kreatiboa	295.199€	–	Alkatea Oarsoaldeako arduradun teknikoa					
11 / "Kapitain Etxea" Jantziaren zentroa	410.000€	–	Kultura zinegotzia Kultura teknikaria					
12 / Hiltegiaren birgaitzea, ur-kiroletako erabilera	450.000€	–	Kirol zinegotzia Kirol teknikaria					

Iurraldea

garapen sozioekonomikoaren aldeko apustua

1. helburu estrategikoa

1 /
GUNE HISTORIKOA BERRITZEA

2 /
MERKATARITZA
SUSPERTZEKO PLAN BEREZIA

JARDUNAK	AURREKONTUA	DIRU-LAGUNTZAK	ARDURADUNAK	2015	2016	2017	2018	2019
1 / Gune historikoa berritzea	2.751.587€	940.000€	Alkatea, Hirigintza zinegotzia Hirigintza teknikaria					
2 / Merkataritza suspertzeko plan berezia	170.000€	130.000€	Alkatea, Hirigintza zinegotzia Hirigintza teknikaria					

Lurraldea

pertsonentzako ingurune iraunkorra sustatzea

2. helburu estrategikoa

- 1 / HONDAKINEI BURUZKO UDAL ORDENANTZA PRESTATZEA ETA EZARTZEA
- 2 / ENERGIA IRAUNKORRAREN EKINTZA-PLANA BETETZEA
- 3 / APARKALEKUAK ERAIKITZEA ERDIGUNEAN ETA IGANTZIN
- 4 / ALABERGA GOIA ETA BEHEA LOTZEKO IGOGAILUA ERAIKITZEA, ETA BESTE BI IGOGAILU ERAIKITZEA GOIKO EREMUAN
- 5 / BARANDIARAN PARKEA ERAIKITZEA ETA ARRAMENDI PARKEA HOBETZEKO AUKERAK AZTERTZEA
- 6 / OIARTZUN IBAIA HOBETZEA: JARDUNAK ONDARTXON ETA FANDERIAKO INTERPRETAZIO ZENTROAN, ETA OIARTZUN IBAIAREN PLANA BURUTZEA
- 7 / ATERPETXEAREN PROIEKTUA IDAZTEA
- 8 / KOMUN PUBLIKOEN SAREA EZARTZEA UDALERRI OSOAN
- 9 / URTEKO MANTENU-PLANA FORMULATZEA ETA PLANAREN JARRAIPENA EGITEAREN ARDURADUNA IZENDATZEA
- 10 / ERRENTERIAKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA BERRIKUSTEA
- 11 / BIZIKLETARIEN ETA OINEZKOEN MUGIKORTASUN PLANAK PROPOSATUTAKO BIZIKLETA-SARE NAGUSIA GARATZEA

JARDUNAK	AURREKONTUA	DIRU-LAGUNTZAK	ARDURADUNAK	2015	2016	2017	2018	2019
1 / Hondakinei buruzko udal ordenantza prestatzea eta ezartzea	1.050.000€	75.000€	Ingurumena zinegotzia Ingurumena teknikaria					
2 / Energia iraunkorraren ekintza-plana betetzea	2.000.000€	424.947€	Hirigintza zinegotzia, Ingurumen zinegotzia Iraunkortasun teknikaria					
3 / Aparkalekuak								
Erdigunean aparkalekuak eraikitzea	2.000.000€	1.000.000€	Hirigintza zinegotzia Hirigintza teknikaria					
Igantzin aparkalekuak eraikitzea	107.100€	–	Hirigintza zinegotzia Hirigintza teknikaria					
4 / Igogailuak								
Alaberga goia eta behea lotzeko igogailua	1.770.000€	300.000€	Hirigintza zinegotzia Hirigintza teknikaria					
Galtzarabardako igogailua eraikitzea	600.000€	150.000€	Hirigintza zinegotzia Hirigintza teknikaria					
Berango igogailua eraikitzea	700.000€	150.000€	Hirigintza zinegotzia Hirigintza teknikaria					
5 / Parkeak								
Barandiaran parkea eraikitzea	400.000€	–	Hirigintza zinegotzia Hirigintza teknikaria					
Arremendiren hobetzea aztertzea	316.000€	–	Hirigintza zinegotzia Hirigintza teknikaria					
6 / Oartzun ibaia hobetzea								
Jardunak Ondartxon	240.000€	–	Ingurumena zinegotzia Ingurumena teknikaria					
Fanderiako interpretazio zentroa	220.000€	–	Ingurumena zinegotzia Ingurumena teknikaria					
Oartzun ibaiaren plana burutzea	280.000€	–	Ingurumena zinegotzia Ingurumena teknikaria					
7 / Aterpetearen proiektua idaztea	1.360.000€	–	Hirigintza zinegotzia Hirigintza teknikaria					
8 / Komun publikoen sarea ezartzea udalerrri osoan	Aurrekontu arunta	–	Hirigintza zinegotzia Hirigintza teknikaria					
9 / Mantenu plana formulatzea	Arrekontu arunta	–	Hirigintza zinegotzia Mantenuen arduradun orokorra					
10 / Plan Orokorraren berrikuspena	400.000€	–	Alkatea Hirigintza teknikariak					
11/ Bizikletari eta oinezkoen Mugikortasun planak Bizikleta-sare nagusia garatzea	590.562€	–	Hirigintza zinegotzia, Mugikortasun zinegotzia Hirigintza teknikariak					